

# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 16a / 4. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna, z/g 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Plazan ezin da aparkatu, baina zamalanak egin ahal izango dira

UBANE MADERA

Iraileko esperientzia ikusi eta gero, eta plazako dendarien kexuak jaso ondoren, Udalak erabaki du Bizente Goikoetxea plazan aparkatzea debekatuta egongo dela aurrerantzean, baina zamalanak egin ahal izango direla. Ondorioz, seinale berria ere ipiniko dute plazaren sarreran.

Oraingo asteen, alkateak ohar bat bidaliko die herritar guztiei, Bizente Goikoetxea plazan ibilgailuak aparkatzeko debekua dela-eta. Alkateak adierazi duenez, iraileko esperientzia ikusi eta gero, eta dendarien kexuak jaso ondoren, Hirigintza batzordeak eta plazako dendariak batzarrak egin zuten gaia aztertzeko. Denen artean erabaki zuten nahiz eta plazan aparkatzea debekatu-

ta egon "zamalanak egitea baimenduta egongo dela, horrela ibilgailua behar duten dendetako hornitzaileek eta erosketak egiteko Aramaioko bizilagunek autoa plazan utzi ahal izango dute, erosketak egiten dituzten bitartean".

Īnaki Nafarrate alkateak gaineratu duenez, ondorioz, "laster seinaleak aldatuko ditugu eta zamalanak baimenduta egongo dira, horrela, bizilagunek erraztasunak izango dituzte eta, bide batez, plazako eremu publikoa berreskuratuko dugu".

### IRTENBIDE BILA

Udalak onartu du plaza inguruan aparkaleku eza dagoela, eta irtenbide aproposenak aztertzen ari direla jakinarazi du.


Edozelan ere, gaineratu du "bizilagun askok eta askok erosotasunagatik oinez erraz egin ditzaketen bideak autoz egiten dituztela. Autoa urrutiago aparkatzea eta horrela Aramaioko plaza gainezka ez uztea ez deritzogu hain zaila denik".

Hortaz, Bizente Goikoetxea plaza auto barik ikusten segituko dugu. Edozelan ere, herritar asko ez dago batere pozik Aramaioko Udalak hartutako erabakiarekin.



UBANE

Ipinitako seinaleak aldatuko dituzte eta berriak ipini.



### 'Dama Zuria'ren bisita

Abisatuta geunden arren, egubakoitzean, gehienok aho zabalik begiratu genion udazkeneko aurreneko elurteari. Ez zuen gauza handirik egin, baina azaro hasiera izanda nahikoa izan zen gu harritu eta zailtasunen bat edo beste eragiteko.

Aramaion goizean goiz hasi zen elurra. Etxaguenen, herriko auzorik altuenean, 20-25 zentimetro elur batu zela adierazi digu Jesus Mari González auzo-alkateak. Ondorioz, hasieran bideak itxita izan ziren, Udaleko langileek garbitu zituzten arte./UBANE MADERA

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu plazan aparkatzeko debekua?



ELVIRA ERRASTI  
LANGILEA

Ondo, betiere beste leku batzuk ipiniz gero; han bizi den jendeak non utzi behar du bestela autoa garajerik ez badu? Beste puntara joan behar dira?



JOSE RAMON BEITIA  
LANGILEA

Ondo-ondo ez dago; aparkalekuekin arazoak daude, hortaz, non aparkatu? Plaza osoan ez, baina zatiren baten utzi beharko lukete aparkatzen.




MERTXE LETE  
ETXEKOANDREA

Debekatzea ondo dago, plaza libre egotea ere ondo dago, baina aparkalekuak egon daitezela beste nonbaiten, bestela non utziko du jendeak automobila?



ANE ZENDOIA  
ETXEKOANDREA

Iruditzen zait akaso plaza ez dela aparkatzeko lekua, badago nahiko leku aparkatzeko beste leku batzuetan. Hortaz, ondo iruditzen zait debekatzea.



ALFONTSO DEL CAMPO  
LANGILEA

Neurria ona da, baina egin baino lehen edo horrekin batera, aparkalekuak egin beharko lituzkete. Jendea haserre dago. Orain bertan, ez da egokia.

## LABUR

### Hamalau lagun lehian Argazki Rallyan

Hamalau lagunek eman diuzten izena Aramaioko II. Argazki Rallyan. Gehienak Araba aldetik dira, baina badaude Aramaioko bost lagun ere. Datuak irten egubakoitzean, hilak jakinaraziko dute zeinek irabazi duen. Sariak ilunkeriaren banatuko dira, kultura eta kiari. Bost daude: 45.000, 30.000 eta 20.000 pezeta lehenengo hirurendako; aramaioko ondorenak 20.000 pezeta jasoko dituzte eta 10.000 pezeta akzesitateko badago. Gero, diapositibak proiektzioa egingo dute.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Osasun Etxea	943 76 24 40
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak	943 76 51 06

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
	20:30	20:45
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

## LABURRAK

### EUSKARAZKO ALFABETATZEA

Doako euskarazko eskolak jasotzeko aukera dago kultura etxean. Astelehenean, martitzenetan eta eguaztenetan izaten dira, 18:00etatik 20:00ak arte. Ikastaroak martxoaren 22ra arte iraungo du. Izena emateko Udalera jo beharko da.

### AUTODEFENTSA IKASTAROA

Datorren astean, emakumeendako autodefentsa ikastaroa izango da San Martin Ikastolan. Doan izango da, astelehenean egubakoitzera arte, 18:30etik 20:30ak arte. Izena emateko 945445323 telefonora deitu behar da. Komeni da ikastarora jantzi erosoak eramatea. Itur Zuri emakume taldeak antolatatu du ikastaroa, Arabako Emakumeen Asanbladaren bitartez. *Ez niri ezta beste emakume bati ere. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kanpaina* izena du.

### FRUTAGINTZA ETA INAUSKETA

Oraingo zapatuan hasi da Udalak antolatutako frutagintza eta fruta arbolen inausketa ikastaroa. Hamazazpi lagunek eman dute izena. Zapaturo elkartuko dira, datozen bost zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara kultura etxean.

### JOLASEN GAINEKO OHARRA

*Aramaioko joko eta jolasak* libururekin batera, Udalak eskaera bat bidaliko die herritarrei: liburu horretan ez dagoen jolasik ezagutzen gero, Udalarekin harremanetan jartzea, hain justu ere. Horrela, liburuen hurrengo edizio baten jolas hori ere sartuko dute. Informazioa emateko 945445016 telefonora deitu beharko da.

## KULTURA

### Dantzaldia, txokolate-jana, Bermut-dantza eta bestelakoak San Melixenetan

San Martinen ondoren, San Melixenak datoz, Gantzaga auzoko jaiak. Eta, jakina, dena gertu dago astebururako. Zapatuan, goizean goiz ekingo diote kanpai eta suziriekin; gero, 12:00etan meza nagusia izango da, Aretxabaletako abesbatzak kantatutakoa (bukaeran kontzertu txiki bat emango da elizan bertan). Eta goizari amaiera emateko, Larrea anaiek kaleak alaituko dituzte trikitixa doinuekin. Arratsaldean,

17:00etan segituko du festak; umeen jolasak eta mus txapelketa izango dira orduan. Eta gau partean, Etxabe anaiek alaitutako dantzaldia izango da 23:00etan, eta 03:00etan, txokolate-jana.

Domekan, bestalde, meza izango da auzoko hildakoen alde 11:00etan. 11:30ean Lagun-Artean dantza taldeak saioa eskainiko du eta 12:00etan Gantzagako XXI. Txirrindulari Igoera izango da. Txikiteroek 13:00etarako dute deialdia; tarte horretan, Bermut-dantza izango da Larrea anaiekin. Bazkalostean, 17:00etan, tute txapelketa izango da, eta 20:00etan jaiak agurtu egingo dituzte hurrengo urte arte.

Edozelan ere, San Melixenen barruan, azaroaren 30ean, bertso afaria izango da



## SAN MARTIN EGUNA

### Iazkoan baino lagun gehiagok parte hartu dute aurtengo partxis lehiaketan

Arrakastatsua izan da San Martin Egunaren ospakizunen barruan jokaturako partxis lehiaketa. Txirritola elkarteak antolatuta, aurtengo, bigarren aldia izan da, eta 56 lagunek parte hartu zuten; iaz baino gehiago. Horiatik hiru irten ziren garaile: gazte mailan (6-12 urte) Andoni Beitia; erdiko mailan (13-16) Jokin Balanzategi; eta nagusien mailan (16tik aurrera) Loli Lasaga. Denek eskuratu dute "Txirritola garaikurra". Horrez gain, gazte mailako irabazleari 10.000 pezetako bonoa eman diote Arrasateko Discopolis dendan gastatze-



ko. Nagusiek, berriz, 15.000na pezeta poltsikoratu dituzte.

Txirritolak lehiaketaren balorazio positiboa egin du.

## BERTAKO KONTUAK

### LAMINAK

Oso itxura ederreko emakumeak ei ziren; ile luze-luzea zeukaten, eta urrezko orrazi batekin orrazten zuten. Hankak ahateenak modukoak zituzten; oiloen tankerakoak zituztela ere entzun dugu. Ipuin baten, gainera, gizon itxuran agertzen da sorgin bat.

Izaki horiek okerrak dira, txarrak, horregatik ezin izaten dira eliza barrura sartu. Gure lekuko arabera, Aramaion leku hauetan agertzen ziren: Sorgin Zubin (Ibarran), Afasta aldeko zubi baten (Zabola eta Untzilla artean), Errotabarritik gora muna gainetan, Goikorrota inguruan eta Beetixen (Gantzagan); hori leku zehatzei dagokienez. Bestela, erreka zulo eta erreka konkretan agertzen ei ziren.

## BOTE PRONTOAN / Patxi Aizpurua · Liburuaren idazlea

### "Gaur egungo umeek oso asti gutxi izaten dute jolaserako; denbora libre gutxi geratzen zaie"

Aste bukaeran *Aramaioko joko eta jolasak* izeneko liburua aurkeztu dute. 15 urteko lanaren emaitza da. 1985ean hasi ziren datuak biltzen. Gabiñe Intsaustik eta Patxi Aizpuruak idatzi dute liburua, eta Iban Astondoak marrazkiak egin ditu. Aramaioar guztien etxera bidaliko dute liburua, Zuiako koadrilaren aldizkariarekin batera. Baina, bien bitartean, hara Patxi egindako aurrerapentxoak:

#### Nondik nora jo duzue lana egiteko?

Ibarrara jo genuen lehenengo; han, Elejalde abade jaunarekin berba egin genuen, eta hark eman zigun hasiera, berri emaleak... Adineko jendearekin hasi ginen, gero haien seme-

alabekin eta gero ilobekin. Hortaz, hiru belaunalditan egin dugu lana.

#### Jolasteko ohitura asko aldatu da?

Bai. Gaur egungo umeek oso asti gutxi izaten dute jolaserako; mila gauza egiten dute eta denbora libre gutxi geratzen zaie. Gaur egungo gizartearen eredu, helduek darماغun martxa kutsatu diegu. Bestalde, gaur egun, informatikaren eraginez, isolatu egiten gara. Ezin da ukatu informatikaren indarra eta balioa inondik inora, baina, nik uste, dugun denbora libre guztia nor bere gelan eman beharrean, badagoela besterik.

Era berean, lehenengo jolasetan ibiltzea baino, askok gurago izaten dute futbolekin, saskiba-



Gabiñe Intsausti eta Patxi Aizpurua

loian... ibiltzea.

#### Zelakoak ziren lehenengo jolasak?

Baserriarekin, inguruarekin eta urtaroarekin zeuden lotuta; umeak irudimena erabili behar izaten zuen. Orain, berriz, jostailu-egileak erabakitzen du jolasak zelakoak izango diren.

#### Oraindik jolasten da betiko joko horietako baten batera?

Arropekin moduan, jolasak ere moda kontuak izaten dira. Adibidez, karta-jokoak oraindik ere indarrean daude, batez ere, herri txikietan.

#### Liburuan agertzen den jokoren bat...

Dale fuerteka, Asto-astoka, Kromoak, Asakaska, Kui-kuika, Txoizo-mortzillie...